EIAD-019 e

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTA POLITIKA SAILA
*Kultura Ondarearen Zuzendaritza*
*Euskal Kultura Ondarearen Zentroa*

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
*Dirección de Patrimonio Cultural*
*Centro de Patrimonio Cultural Vasco*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
2017 URR. OCT. 20
SARRERA Zk. 907337 | IRTEERA Zk.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
2017 URR. OCT. 19
SARRERA Zk. | IRTEERA Zk. 374844

Ivan Pedreira Lanchas
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria/
Director de Administración Ambiental
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila/
*Dep. de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda*
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
Donostia / San Sebastián, 1
01010 - VITORIA-GASTEIZ

**GAIA:** Kultura Ondareari buruzko kontsultari erantzuna, ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozedura baterako

**ASUNTO:** Respuesta a una consulta sobre Patrimonio Cultural para un procedimiento de Evaluación de impacto ambiental ordinaria

Jaun hori:

Sail honetan jaso dugu *«Iberdrola Distribución eléctrica, S.A.U.k sustatuta, I-II Gasteiz-Salburua AT eta I-II Gasteiz-Arana AT Izeneko 30kV-ko aireko eta lurrazpiko 4 zirkuituren linea elektrikoak eraikitzeko proiektuaren ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa»*ri buruz zuek bidalitako idazkia. Bertan, kontsulta egiten duzue, ingurumen-inpaktuaren azterketak jaso beharreko Kultura Ondareari buruzko zehaztapenei buruz.

Proiektuaren aurretiko dokumentazioa eta Kultura Ondarearen Zentroak, gaur egun dituen datuak aztertuta, honako eragin hauek ikusi ditugu, aipatutako aurretiko dokumentazioan ere jasota daudenak:

Estimado Sr.:

Ha tenido entrada en este Departamento escrito remitido por Uds. sobre «*«Evaluación de impacto ambiental ordinaria para el proyecto de construcción de 4 circuitos de líneas eléctricas aéreas y subterráneas de 30 kv, denominadas S.T. Vitoria-Salburua I-II y S. T. Vitoria-Arana I-II, promovido por Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U.* » en el que se realiza consulta sobre las especificaciones de Patrimonio Cultural que se deben recoger en el estudio de impacto ambiental.

Consultada la documentación previa del proyecto y los datos con que cuenta actualmente el Centro de Patrimonio Cultural, se señalan las siguientes afecciones, ya indicadas también en la citada documentación previa:

**Donejakue Bidea**[1]: Bruselas Etorbidea kalean (Arkaute deitutako aukeran), eta Elorriagako atea kalearen zati komunean. Inguru urbanizatua izanik eta esparru horretan linea elektrikoa lurrazpikoa denez, Kultura Ondareari buruzko eragina baxua edo ezereza da, izan ere, ezin da jo faktore eraisletzat, ingurumenaren gaineko eragina ez da bereziki esanguratsua eta behin lanak eginda ez da ikusizko inpakturik izango.

**Camino de Santiago**[1]: en calle Avenida de Bruselas (en la alternativa denominada Arkaute), y en el tramo común en calle Portal de Elorriaga. Al ser una zona urbanizada y tratarse de un trazado eléctrico subterráneo para esta parte, la afección al Patrimonio Cultural es baja o nula, ya que no se puede considerar como factor de destrucción, la afección al entorno no es especialmente significativa y una vez realizada la obra no va a existir impacto visual.

**135 zenbakidun gune arkeologikoa: Petrikizeko San Pedroren Herria eta Tenplua**: gaur egun, oraindik 7/1990 Legearen arabera lege-babesik ez duen gunea da. Hala ere, dituen arkeologia balioengatik, babesteko proposatuta dago inbentaria edo kalifika daitekeen gune arkeologiko gisa. Arkaute deitutako aukeraren kasuan, aireko linea aurreikusten da gune horren esparruan. Inpaktuaren maila ezin dugu jakin, analisi xehatuan zehazten diren ezaugarrien araberakoa izango baita.

**Zona arqueológica nº 135 Poblado y Templo de San Pedro de Petriquiz**: se trata de una zona arqueológica que actualmente carece todavía de protección legal según la Ley 7/1990. Sin embargo, por sus valores arqueológicos cuenta con propuesta de protección como zona arqueológica susceptible de inventariado o calificado. En el caso de la alternativa denominada Arkaute se contempla línea aérea en el ámbito de esta zona. Se desconoce el grado de impacto, en función de las características que se definan en el análisis detallado.

Beraz, Kultura Ondarearen gaineko balizko eraginetarako babes-neurri eta neurri zuzentzaile hauek jaso beharko lirateke:

Por consiguiente, se deberían incluir como medidas de protección y correctoras para las posibles afecciones al Patrimonio Cultural las siguientes:

a) *Donejakue bidearen trazaduraren guneetan*, 2/2012 Dekretuaren (III eranskina) babes-araudiaren 7.3 puntuan xedatutakoa aplikatu beharko da, hots, esku-hartzeak, udal- lizentzia jaso aurretik, Foru Aldundiak baimendu beharko

a) En las zonas de *trazado del Camino de Santiago*, se deberá aplicar lo dispuesto en el régimen de protección (anexo III) del Decreto 2/2012 de declaración, en el punto 7.3, es decir, las intervenciones están sujetas a autorización de

[1] *2/2012 DEKRETUA, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa. 2012/01/27ko EHAA 19 zk./ Decreto 2/2012, de 10 de enero, por el que se califica como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco. BOPV 27/01/2012 nº 19.*

ditu. Halaber, trazaduraren babes-irizpideen arabera, bidearen jarraikortasuna eta ingurumen ezaugarrien kalitatea bermatu beharko da.

b) Analizatu beharko da 135 zenbakidun gune arkeologikoan, *Petrikizeko San Pedroren Herrian eta Tenpluan,* eraginik ote dagoen. Xedatutako analisiak eragina aurreikusten badu, eustoinak instalatzen direlako, edo sarbideak zabaltzen direlako edota gune arkeologikoan lurzorua mugitzea ekartzen duten beste lanen ondorioz, balizko arkeologia guneen babes-araudia aplikatu beharko litzateke, hots, guneari eragin diezaiokeen edozein jarduketarako, azterketa arkeologikoa egin beharko litzateke, eta horren arabera Arabako Aldundiaren Kultura Sailak erabakitzen du proiektu arkeologikoa beharrezkoa den ala ez.

Halaber, gogorarazten dizuegu Kultura Ondarearen Katalogoak eguneratzen ari direla, eta baliteke analisian detektatu gabeko elementuak egotea edo etorkizunean elementu berriak agertzea.

Besterik gabe, adeitasunez,

la Diputación Foral, previa a la concesión de la licencia municipal. Así mismo, según los criterios de protección del trazado, se deberá asegurar la continuidad y calidad de las características ambientales del camino.

b) Se deberá analizar si existe afección a la zona arqueológica nº 135 *Poblado y Templo de San Pedro de Petriquiz.* En caso de que el análisis detallado estableciera afección debido a la instalación de apoyos o apertura de accesos u otros trabajos que implicaran remoción del suelo en la zona arqueológica, se debería aplicar el régimen de las zonas de presunción arqueológica, es decir, para cualquier actuación que pueda afectar a la zona, se debería realizar un estudio arqueológico, en base a lo cual el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava/Araba determinará si es necesario el proyecto arqueológico.

Se recuerda, así mismo, que los Catálogos de Patrimonio Cultural se encuentran en proceso de revisión por lo que podrían existir elementos no detectados en el análisis o nuevos elementos que pueden surgir a futuro.

Sin otro particular, atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 18a / Vitoria-Gasteiz, 18 de octubre de 2017

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Mikel Aizpuru Murua
Kultura Ondarearen zuzendaria/ Director de Patrimonio Cultural

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus